



GARENETIK (HEL)MUGARA



NAHIKARI. Liburuetan murgiltzean, batzuetan gure burua definitzen dituzten istorioak topatzen ditugu. Y este recital pretende ser precisamente esto, un libro abierto. Nor diren, zer desio duten, zerk beldurtzen dituzten, zer maite duten, zein etorkizun marrazten duten... zalantzan jartzen dutenen ahotsak entzungo dituzue. Son adolescentes, que, como Alicia en el País de las Maravillas, han detenido el reloj para preguntarse si el viaje que iniciaron hace quince años les está guiando a través del camino correcto. Disidenteak, su-eragileak, inkonformistak, errebeldeak, kuriosoak, ausartak, introspektiboak, sentiberak... Ez dago baldosa horidun biderik euren motxilan. Ezta Untxi Zuririk. Tampoco pretenden dibujar el mapa que les dirija a ninguna Ítaca. Haiek baino ez dira: jóvenes intentando hacer poesía. “Garenetik (hel)mugara”, desde el libro abierto que son ahora mismo. Ongi etorriak gure “lurralde miresgarria”. Bienvenidos/as al mundo de Alicia.

1. NOR NAIZ: Ander, Malen, Ager

Proiektzioa 1: ALICIAREN IZENA

NAIA. *“La Oruga y Alicia se miraron un rato en silencio. Al fin, la Oruga se quitó el narguile de la boca y se dirigió a Alicia con voz lánguida y soñolienta.*

-Nor zara zu?

Aliciak, apur bat izuturik, erantzun zuen:

- Pues yo.., yo, ahora mismo, señora, ni lo sé...Sí sé quién era cuando esta mañana me levanté, pero he debido de cambiar varias veces desde entonces.

-Zer esan nahi duzu horrekin? -esan zuen Beldarrak gogorki.

- Para empezar, ni yo misma lo comprendo; y el cambiar tantas veces de tamaño en un solo día es muy desconcertante...

- No lo es - dijo la Oruga.

-Beno, agian oraindik ez da zuretzat -esan zuen Aliciak-, baina ikusiko duzu krisalida bihurtzen zarenean... eta gero, denborarekin, tximeleta bihurtzen zarenean... Orduan, dena arraro samar ikusiko duzu, ezta?

- Ni pizca - dijo la Oruga.

-Bueno, quizá vea las cosas usted a su manera -dijo Alicia- lo que sí puedo decirle es que a mí me resultaría muy raro.

-Zuri! -esan zuen Beldarrak erdeinuz- Eta nor zara zu?”



PROIEKZIOA 2: Nor naiz

PROIEKZIOA 3: txikitako argazkien segida bat irakurtzen duten bitartean

(Hiurek testuen bestekaldean galdera marka bat daukate. Irakurtzen bukatzen dutenean, orriak zintzilikatuko dituzte)

ANDER.

Nire N.A.N-ak nor naizen esaten dit.

Baina... Hori dena egia ahal da?

Jendeak nor uste du naizela?

Eta ni... nork naiz ni?

Bai, gizaki bat naiz eta hori dena.

Baina, gorputzaren mugetatik at?

Ni nire pasioa naiz.

Ni nire ametsak naiz.

Ni, nire gustuak naiz.

Ni mugitzen nauena naiz.

MALEN. Momentu on eta txarrekin bizi dena; nire defektuekin. Momentuoro izaera aldatzen duena; nire gorputzarekin dabilena. Besteengandik desberdintzen dena, nahi duen modukoa dena, nahi duena egiten badakiena. Pertsona alaia baina sentikorra. Bizi nahiaz mundu osoa ikusteko prest dagoena eta bere buruari proposatzen diona egiteko gai dena. Indartsu batzutan, ume baten negarretan babesten dena, besteetan. Maitatzen duen izakia. Laguntzeko prest dagoena. Gorputz berdinean, pertsona ona eta txarra. Begiak itxi eta bere mundura doana, dena izaten dakiena.

AGER. Benetan nor naizen galdetzen didatenean ez dakit zer erantzun, burutik ez zait ezer pasatzen. nor naizen galdetzen didatenean nire izenarekin erantzuten dut: Ager. Baina sarri hau galdetzen diot nire buruari:

- Txikia zen umea oraindik ni naiz?
- Ikastolara heltzerakoan ezer ez zekien mutila, ni naiz?
- Klaseetara etortzen den mutila, ni naiz?
- Asteburuetan bideojokuetara jolasten duen mutila, ni naiz?



- Futbola maite duena, ni al naiz?

Horrek guztiak definitzen al nau? Zenbat urtez jarraituko dut jakin gabe benetan nor naizen?
Noiz jakingo dut nor naizen?

AGER. Benetan, nor naiz?

ANDER. Ni... Ni Naiz.

MALEN. Sentitzen, maitatzen, bizitzen duen pertsona bat, besterik ez.

(Eskuan dituzten testuak zintzilikatu egiten dituzte bestaldetik. Atzean, galdera marka ikus daiteke)

2. BAKARDADE BAT: Ariane, Iñaki

PROIEKZIOA 4: "ALICIAREN BAKARDADEA"

JOAR. *"Alicia se daba por lo general muy buenos consejos a sí misma, con bastante firmeza (aunque rara vez los seguía), y algunas veces se reñía con tanta dureza que se le saltaban las lágrimas. Gogoan zuen inoiz bere buruari belarritik tiratzen saiatu izana ere, bere buruarekin jokatzeko zuen kroket-partida batean bere buruari tranpa egiteagatik, zeren eta izaki bitxi hari asko gustatzen baitzitzaion aldi berean bi pertsona balira bezala jokatzeko. "Pero de nada me serviría ahora comportarme como si fuera dos personas!", pensó Alicia. "Cuando ya se me hace bastante difícil ser una sola..."*

PROIEKZIOA 5: Bakardade bat

(Jule flauta trabesera jotzen hasten da)

IÑAKI. Bakarrik, isiltasunean,

Atera ezinik,

Norbait ezagutzeko irrikian

Baina ez dut ahalmenik

Zulo beltz sakonean,



Kartzela amaigabea,
Itsasoaren erdigunean,
Basamortu lehorrean.

Berdin du tokiak:
Bakarrik nago.

Ez nago pozik,
Ez nago triste.
Hutsa dut barrutik,
Inork ez nau presente

Hori uste dut,
Horrela dela sentitu,
Beharra dut, halabaina,
Bizitzari zerbait gehitzeko.

ARIANE. Bakardadeak ez du atea jotzen, ez du abisatzen. Bat-batean zurekin dago, zure etxean, zure gelan, zure ohearen ertzean eserita. Hasieran, haren presentzia arrotza egiten zaizu; isiltasunak estutzen zaitu, eta norbaiten ahotsa, zarata bat, edozeren hotsa behar duzula sentitzen duzu. Baina denborarekin konturatzen zara bakardadea ez dela kanpotik etorri, betidanik egon dela zurekin, zure barruan. Haren arrastoa batzuetan arina da, haizean desegiten den lainoa bezalakoa. Beste batzuetan, ordea, astuna bihurtzen da, iluntasunaren parte bat balitz bezala. Gau horietan, ilargia begiratzen duzu, agian, ilargiak ere bakarrik sentitzen du bere burua, agian bere argia ez da beti nahikoa berarentzat. Batzuetan, berarekin hitz egiten ikasten duzu eta orduan, ohartzen zara: bakardadea ez da hutsunea betetzeko zerbait, zure burua aurkitzeko aukera baizik. Egun batean, leihoa irekitzen duzu. Lehen aldiz, bakardadea ez da horma bat. Ate bihurtzen da.

(Eskuan dituzten giltzak zintzilikatuko dituzte.)

3. MAITASUN BAT: Nahie, Naioa, Itxina, Izaro

PROIEKZIOA 6: "Aliciaren maitasuna"

ARIANE. *No, el amor no era una preocupación para Alicia. Ez zen arduratzen polita izateaz, erakargarria izateaz, eta ez zen bereziki adierazgarria bere bidean agertzen zenarentzat. Bastante trabajo tenía con redefinir el amor a través de su espejo: verse ella en su propio reflejo. Maitasuna ez zen inori erakutsi beharreko zerbait: sólo tenía que convencerse a sí misma de que el suyo propio era la mejor opción para descubrir a dónde le llevaban sus pisadas.*

PROIEKZIOA 7: MAITASUN BAT

(Musikak eszena guztia iraungo du. Izaro eta Nahie bakuaren aldeetan eseriko dira, bizkarra emanaz. Itxina publikotik sartu eta bere testua irakurtzen du.)

ITXINA. Maitasuna xuxurla bat da azalean,
erretzen ez duen sute bat,
arimako lotzen dituen hari ikusezina,
denbora eta distantziatik haratago.
Ekaitzaren laztana da.
Barre baten ohiartzuna,
munduko bazterren batean
bihotz bat dago koonpas berean taupadaka.
Batzuetan mina egiten du, eta beste batzuetan lagundu,
baina beti uzten du bere arrastoa,
maiatzea existitzea delako
eta existitzea maitatzea da.

NAIOA. Gustoko duzun neskaren argitalpen bati “like” ematea deitzen diogu maitasuna; elkar ezagutu gabe sexu-harremanak izateari deitzen diogu maitasuna; norbaitekin egunero hitz egiteari deitzen diogu maitasuna;
baina ez. Hau ez da maitasuna.

Detaile txikietan gordeta dago maitasuna,
ispuluan begiratu eta gure buruaz jabetzen garen unean,



alboan dugun horri izaten uzten diogunean,
behar ditugunei hegoak ematean,
eskaini dugun guztia itzultzen ikustean.
Hori litzateke maitasuna. Baldintzarik gabe bizitzen ikasiko bagenu.

IZARO. “Zer da maitasuna?”

galdetuko bazenit
ez nizuke definizio bat esango,
izen bat baizik:
begirada bakoitzean
besteak pentsatzen duena
asma dezakeen pertsona baten izena, alegia.
Etxean bezala sentiarazten nau,
epaitua ez naizen leku bakarra da bere izena.
Nahiz eta nigandik hurbil egon
faltan botatzen dut bere izena.

Tximeletek sabeletik ahora bidaiatu dute,
eta gau eta egun lanean dauden
inurriak sortzen dizkit gorputzean zehar.

Inoiz zutaz nekatuko naizela pentsatuko bazenu,
oso erratuta egongo zinateke.
Egunak alaiagoak egiten dizkidazulako:
mainteminduagoa egon naiteke?

Egunero eskertzen diot bizitzari
zu bezalako norbait bidali izana:
nire begietako distira pizten zoazen izena zara.

NAHIE. El amor... todo él mundo habla de él como si fuera lo más bonito que existe, pero



nadie te advierte de lo complicado que puede llegar a ser. Nos lo venden como algo mágico, algo que llena, que completa, pero ¿qué pasa cuando también duele? ¿Cuando te hace dudar de ti misma? ¿Cuando te llena de preguntas en vez de respuestas?

El amor es un torbellino. Una sensación de vértigo cuando la felicidad ajena es más importante que la tuya. Es esperar un mensaje y sentir que el tiempo se congela hasta que llega. Es sonreír con una sola mirada, pero también el llanto en el silencio de tu habitación cuando sientes que algo está cambiando y no puedes hacer nada para evitarlo.

El amor te hace vulnerable. Te abre en canal, te muestra parte de ti que ni siquiera sabías que existía. Te da el cielo y, a veces, también te arrastra por el suelo. Pero ahí estamos otra vez, lo volvemos a buscar, lo perseguimos, porque en esos momentos en los que es real, en los que es puro, todo lo demás deja de importar.

4. BELDUR BAT: Irune, Maider, Paule C, Joar, Unai

PROIEKZIOA 8: ALICIAREN BELDURRA

IRUNE. *“Alicia oyó un ruidito de pasos por la escalera. Comprendió que era el Conejo que subía en su busca y se echó a temblar con tal fuerza que sacudió toda la casa, olvidando que ahora era mil veces mayor que el Conejo Blanco y no había por tanto motivo alguno para tenerle miedo.”*

PROIEKZIOA 9: BELDUR BAT

(Abesti bat egongo da gure aktuazio osoan zehar bolumen baxuz. Eszenatokian bostak sartu eta “warning” antzeko seinale bat jarriko dugu. Ondoren, bankuan eseriko gara. Bakoitzak kamiseta zuri bat izango du (GURE BELDURRAK BELDURTU HORTZAK ERAKUTSIZ) esaldiko hitz bat izango du bakoitzak eta bakoitzak bere textua irakurtzerakoan kendu eta zintzilikatuko du)

PAULE. Arnasik gabe nago. Mendi tontorrera heldu naiz eta amildegi baten ertzean nagoela sentitzen dut. Leku desagoki batean zapaldu, huts ergel bat eta pikutara noa.

Lasai egoteko esaten diot nire buruari, eta nire gorputzari, ez duela axola. Baina zertarako engainatu behar?



Ezin diot garrantzirik kendu, tontakeri bategatik ezin dizkiot nire bihotzari taupadak lapurtu. Oso gaztea naiz, ez dut asegabe hil nahi, hainbat amets ditut betetzeko, hainbat bizipen bizitzeko eta haietatik ikasteko, hainbat leku ezagutzeko.

Nagusitzeko denbora behar dut, baina egia esan, horrek ere beldurtzen nau: nire bizimodua erradikalki aldatzeak, jendea galtzeak, nire bizitzaren ardura osoa edukitzeak... nire kezka nagusia egunean eramango dudako arropa izan beharrean, lana izan eta soldata duin bat jasoko dudako jakitea da. Nahiz eta etorkizunean pentsatzeko lekurik ez izan, hori bera izango gara lehenago edo geroago eta horrekin biziraungo dugu. Pentsamendu positiboa irtenbide errazena dela uste dut, gauza guztien alde onak ikustea. Askotan horrek beldurrei aurre egiteko indarrak ematen dizkigu edo behintzat haietaz ahazteko.

Beldurrak ez ditugu betirako behar, ausartu eta saiatu, mendi tontorrera heldu eta seguru sentitu.

Gure beldurren jabe gara, beldurtu ditzagun beldurrak.

JOAR. Egun hartan, esnatu nintzenean, amak esan zidan lehenengo gauza dut gogoan. Medikuek aitite hilzorian zegoela zioten. Ez dakit nola deskribatu egunetan zehar izan nuen beldurra.

Kaletik noa, telefonoaren hotsa entzutearen beldur, sirenek izutzen naute, atso eta agureak ikusten ditut, eta konturatzen naizenerako begiak malkoz beteta ditut. Aitite nire ondoan behar dut. Gauero etxera heltzen naiz, eta eguneko momenturik gozoena nire gurasoekin igarotzen dut. Oheratzea beste kontu bat da. Instant batean, tunel beltz batean agertzen naiz. Hotza, beldurgarria... Dardarka hasten naiz. Hotzikara batek nire gorputza zeharkatzen du. Gurasoak ere nagusitzen ari dira. Haiek izango al dira hurrengoak? Buruak eztanda egingo dit. Soinu bat entzun dut! Sirena? Deia? Alarma madarikatua da, gaurkoan ere ez dut lorik egin. Ispiluan begiratu eta nire begi zuloek larritu naute. Beldurra sentitzen dut, ikara uneoro. Zergatik ote? Ez litzateke errazago izango sentimendu gaizkile hori nire barnetik ateratzea?

MAIDER. Gau eta egun jarraitzen zaituen sentimendua, beldurra. Errautsi nahi duguna baina joan ezin dena.

Zerbait erabakitzean indartsu ebatzen gaituena.

Nahi ditugun hainbat gauza ezkutatzeko dituenak
ahoskatu nahi ditugun hitzak ostontzen dituenak.

Itzal baten moduan doa gure atzetik,

itzala bai, baina gu akabatzeko nahikoa dena.



UNAI. Itzal bat ilunpean,
pauso hots bat aurrera.
Ihes egin nahi, baina nora?
Arnasa estutzen da, dena ilun dago,
aurrera egin nahi baina
noiz ostonduko da beldurra?

IRUNE. Beldurra harresi bat besterik ez da, zer zaren eta zer izatera irits zaitezkeen bereizten dakiena.

Koldarkeria ez da denbora baino gehiago zahartzen; urteek azala zimurtzen dute, beldurrak aldiz, arima zimurtzen du. Sufritzeko beldurra norberaren sentimendua baino okerragoa da. Beldurrak denbora jakin bat irauten du, baina beldur hori gainditu duzuneko harrotasunak betirako iraungo du.

Beldurtuta zaude zerbaitek edo norbaitek min egingo dizulakoan eta zu zara zure buruari min egiten diona hainbeste beldurrekin. Zerbaitek zure pentsamendu guztiak okupatzen dituenean, zure buruarekiko kontrola hartu du. Ez utzi beldurrari hesi bat izan dadin. Bizitzeko-leloa bezala: beldurrari hortzak erakutsi.

(‘GURE BELDURRAK BELDURTU HORTZAK ERAKUTSIZ’ kamisetez osatutako mezua irakurriko da. Kamisetak kendu eta eszenan utziko dituzte)

5. ETORKIZUN BAT: Hegoi, Oier, Naia

PROIEKZIOA 10: Aliciaren etorkizuna

MAIDER O. *“La hermana de Alicia estaba sentada allí, con los ojos cerrados, y casi creyó encontrarse ella también en el País de las Maravillas. Imaginatu zuen nolakoa izango zen etorkizunean bere ahizpa, nolakoa izango litzateke Alicia emakume bihurtzerakoan. Y pensó que Alicia conservaría, a lo largo de los años, el mismo corazón sencillo y entusiasta de su niñez, y que reuniría a su alrededor a otros chiquillos, y haría brillar los ojos de los pequeños al contarles un cuento extraño, quizás este mismo sueño del País de las Maravillas que había*



tenido años atrás; eta Aliciak tristura txikiak sentituko zituela eta bere haurtzaro propioa gogoratuz poztuko zela (...)

PROIEKZIOA 11: Etorkizun bat

(Kitarra jotzen hasten da testuak esaten diren bitartean)

(Hegoik seinalearen oinarria jartzen du, bankuan eseri eta irakurtzen du.)

HEGOI. Ohean sartu eta begiak izten ditut: beste mundu batera noa. Leku arraroa da, bakardadez inguraturiko mundua. Supermerkatuak hutsik daude, parkea hutsik dago. Nahi dudan guztia egin ahal dut, baina bakarrik sentitzen naiz, eta ezin dut mundu honetatik atera. Salbu alarmak joko balu. Horrek egingo luke ametsari baino, etorkizunari lekua egitea. Burukoan. Buruminean. Ametsetik esnatzean.

(Bankuaren alde batean eserita geratzen da)

(Oier Eszenatokira sartzen da, oinarriari seinalea jartzen dio, bertan “etorkizuna” dago idatzita.)

OIER.

Zergatik ez zara adierazten? Beldurra al duzu?

lasai egon, zure beharra da

etorkizunerako lagundu egingo zaitu;

zabaldu, zure sentimenduak barrutik atera

ez utzi inori eskubide hori kentzen

bizitza oso gogorra da, baina

ikasten laguntzen digu, protagonista bihurtzen gaitu

zure etorkizuna ezin duzu deskribatu;

disfrutatu eta ez utzi bizitza

zure gaietik pasatzen.

(Irakurtzen bukatzen duenean, biak seinalean etorkizuna adierazten duen aldera doaz)

(Beste seinale bat jartzen du kontrako norabidean, bertan “ametsa” dago idatzita)



NAIA.

Nire ametsa guztia da, normala izan ezik,
nire ametsa ausarta da, ez du inor behar existitzeko, bizia dauka,
bera indartsua da, handia, kolorez betea dago
malkoak zein algarak bertan daude
Akatsak? Akatsak ere baditu, noski, batzuetan zentzugabea delako,
nik ere ez dut ulertzen
Aurrera jarraitzen duzunean bidean oztopoekin egingo duzu topo, zaratarekin,
ohiuen artean pentsamenduak entzuten saiatzen naiz, kasu egiten diet
Bihotz taupadak lasaitzen direnean entzutea lortzen dut
Esna nago eta ikus dezaket
Bidea hor dago eta korrika hasten naiz
Lortuko dut, ametsa harrapatu ahal izango dut?

(Ametsa dioen aldera doa)

(Oier eta Hegoi eszenatokira bueltatzen dira, ametsa seinalatzen duen bidetik joateko)

6. AGUR BAT: Ian, Beñat, Maider O., Haizeder, Paule A, Uxue

PROIEKZIOA 12: Aliciaren agurra

MALEN. “-¡Curioso!- exclamó Alicia (hain zegoen harrituta, ezen une batez behar bezala hitz egitea ere ahaztu baitzitzaion)-. ¡Ahora me estoy estirando como el telescopio más largo que haya existido jamás! ¡Adiós, pies!- oihu egin zuen, behera begiratu zuenean ikusi baitzuen bere oinak hain urruti zeudela, ezen begien bistatik galduko zituela baitzirudien. Me pregunto quién os pondrá ahora vuestros zapatos y vuestros calcetines. Yo voy a estar demasiado lejos para ocuparme personalmente de vosotros: ahal duzuen bezala moldatu beharko duzue...”

PROIEKZIOA 13: Agur bat

(irakurri bitartean fondoan musika entzungo da)



IAN. Agur amari esaten diot, agur aitari esaten diot, agur lagunei esaten diet. “Agur” egunean esaten dudak gauzarik ohikoena da. Baina agur hau ez da agur normal hori, agur hau maite ditudan pertsonen esateko agurra da. Agur hau, esateko zailena da. Ohiko agurrak aldatu nahiko nituzke, eraldatu, bihotz formarekin zizelkatu. Agian, agur esatea ez litzatekelako hitzez adierazi behar, aurrean dugun horrekin bizi ditugun azken segunduak balira bezala sentituko ez bagenu.

(Kutxa bat kokatu)

HAIZEDER. Trenean nago. Lehiotik begira. Ez dakit nora joango naizen, baina hemendik atera nahi dut. Kanpoan ehunka pertsona daude. Bapatean, nire arreta osoa pertsona jakin batek eramaten du. Aitite bat da. Bere bi bilobei besarkatuta. Txikiak dira, eta ez dute beraien aitite joaterik nahi. Begiratzen ez dutenean, masailetik erortzen zaizkion malkoak garbitzen ditu. Ezer baino gehiago maite ditu. Baina joan egin behar du. Elkar ikusiko duten azken aldia da.

Ondoan, bikote bat. Neskak ez joateko errukitzen dio.. Mutilak ez du alde egin nahi. Maite du. Inor baino gehiago. Inork baino gehiago. Berarekin geratu nahi du. Baina ezin dute elkarrekin egon. Elkarri min egiten diote. Besarkada batean desegiten dira. Nire begietan amaigabea den momentua da. Baina haientzat eskasa. Zer da besarkada bat, bata bestea gabe bizitzen ikastearen alboan? Elkar ikusiko duten azken aldia da.

Geltokian dauden pertsona guztiak aztertu ondoren, nire pentsamenduetan murgiltzen naiz. Zergatik al dira agurrak tristeak, zailak, gogorak? Noiz izango da maite ditugunak ikusiko ditugun azken aldia?

Momentu honetan pertsona hauek guztiak behatzea, aztertzea, egin dezakedan gauza bakarra da.

Azkenean, ikusiko ditudan azken aldia da.

UXUE. Min handia egin dit. Berriz esan dit gezurra. Esperantza faltsuak eman eta nire bihotza gehiago apurtu du. Beste behin mindu nau, zauriak sendatzeko indar nahikorik ez dudak momentuan. Ezin dut horrela jarraitu. Ito eta nire argia guztiz itzali aurretik ihes egin behar dut.



MAIDER. Nire pentsamenduetan berriro murgiltzen naiz, nola sentitzen naizen zehazki deskribatzen duen hitz bat aurkitzeko ahalegin huts batean. Bidaia horretan ez naiz inoiz azken helmugara iristen. Ohitura da jada nola sentitzen naizen ez ondorioztatzea. Joan ziren pertsoneri eutsita nago, jadanik existitzen ez diren loturetan, eta oroitzapen zaharren itzaletan bizi naiz.

Denbora aurrera doa eta nik berdin jarraitzen dut.

Amaitu ziren barreetan geldia; egun batean dena izan ziren pertsonetan, baina jada ezer ez diren horietan izoztuta; haurtzaroan.

Zergatik ez naiz behingoz agur esateko gai? Zergatik ezin diot errealitateari aurre egin eta dena aldatu dela onartu? Orain lehen baino hobea izan daitekeela ulertzea.

Ez dut agur esan nahi. Saitazen naiz, baina ezin dut. Ezin dut, funtsean ez dudalako nahi. Eta ez badut egiten? Eta minari lekuri egiten ez badiot? Nork behartu behar nau min hau sentitzen?

Denboraren igarotzea ezin dut jasan. Denbora izoztea behar dut, nire atzean uzten ari naizena onartzen dudan arte, eta orduan, poliki-poliki urtzen hastea. Izan ere, batzuetan oroitzapenak dira joaten uztea hainbeste kostatzen zaigun horrekin geratzen zaizkigun lotura bakarrak. Azken algara hori, azken besarkada, azken klasea denok batera, azken uda.

Ez dut agur esan nahi.

Lehenik pertsonak hauskorrak garela onartu behar dudalako, ezer ez dela betiko. Esaldi, oihu, begirada edo pertsona bategatik hautsi gaitzekela. Gure barneko zerbait apurtzen delako. Ezer ez delako betiko. Ez dudalako agur esan nahi. Eta gaur negarrez esaten dizudalako, baina badakit laister irribarrez esango dizudala. Markekin. Zauriekin. Tiritekin. Irribarrez.

(Kutxa bat kokatu)

BEÑAT. Bada, agur esateko ordua heldu da, eta ez dakit nondik hasi ere. Momentu ikaragarri betetako bidaiaren ostean, maletak uzteko unea da hau: negarrak lehoertzen jarri eta egindako barreak albumetan bildumatzeko garaia.

Ez dut gezurrik esango: pena ematen dit agur esateak, bidai baten bueltan ezer ez delako berdina izango. Bakoitzak bere norabidea du, baina horrek ez du esan nahi nire bidetik joango zaretenik. Lankideak baino gehiago zarete, nire familia: eta hori ez da erraz ezabatuko nire oinatsetatik.

Bizi-bidali ona izan dezazuela denok.



LAUDIO
ikastola

(Kutxa bat kokatu)

PAULE.

Ez nago prest agur honetarako.

Hainbeste ordu, hainbeste egun,

horma hauen artean.

Barreak, negarrak, ametsetarako uneak,

dena bizi izan dugu hemen.

Mahai hau, aulki hau, leiho hura,

dena ezagun, dena etxe.

Baina orain gure etorkizunak urundu behar dira,

beldur naiz.

Ez dut betiko agur esan nahi,

beti gogoratuko zaituztet.

Eskerrik asko eman didazuen guztiagatik

Berriz ikusiko dugu elkar.

(Kutxa bat kokatu)

(Kutxekin egindako piramide bat mezu bat transmititzen duena: Zelan esan agur, agurrik esan gabe?)

PROIEKZIOA 14: Argazki segida.

(Denak batera eszenatokian)

PAULE. Aliciak bere liburua zarratu zuen

ITXINA. y echó a dormir a sus sueños

PAULE C. baita bere amesgaiztoak ere.

MALEN. Hazten jarraitu behar zuela ulertu zuen

NAIOA. aunque a veces sintiera



LAUDIO
ikastola

HEGOI. que, si pudiera detener el tiempo,

BEÑAT. caminar sería más fácil.

IAN. Heroiak ere nekatzen dira batzuetan

IRUNE. maletak larregi pisatzen duenean

ANDER. bizitzak larregi pisatzen duenean

HAIZEDER. o simplemente cuando no se sabe bien

UNAI. cuándo aparecerá la meta.

MAIDER. La meta de conocer quiénes somos

IÑAKI. Zerk beldurtzen gaituen ulertzeko xedea

MAIDER R. Gure bakardadea onartzeko xedea

IRATXE. Gure norabideak aurkitzeko xedea

NAHIE. La meta de saber qué queremos

IZARO. Zer maitatu nahi dugun

NAIA. Zer agurtu beharko genukeen

JOAR. Noiz erabaki behar dugun

UXUE. Cómo llegar a escribir

AGER. Las palabras que nos definan

OIER. Garenetik

ARIANE. Helmugara.

AMAIERA